

Euskara ensalmo bide

Euskaldunon Egunkaria, 1992-01-22: 2.

Abertzaletasunak atxeki ginduzenetik dakigu euskara dela Euskal Herriaren arima. Hizkuntza-mundu batzuetatik pasa gara geroztik, eta ez dugu besteengan zientzia hoberik aurkitu. Gizakiak berezkoa du bere askatasunaren giltza den tasun hau defendatzeko sena. Eskarmentu biziaz baieztatu dugu gure arbasoak euskararen zuten atxekitasunaren balio unibertsala. Ez da aberastasun kontua. Gizakiaren *species*aren batasuna eta nortasunaren bereizketak kontraesanik gabe bizi dira herrietan. Gu ez gara 14, ozta-ozta 4 baino. Unibertsitaterik gabeko lau artzain. Baina eritasuna ez dago gutxi izatean, axolagabekeria baizik. Gerauek ikasi genuen eskolan egin den azken kontzilioan, esate baterako, maisuen hitzaldiak egin dituzten hirutik batek ere ez daki euskaraz, eta printzipiotako mandamenduak berritzaerakoan Euskara honela definitu dute, zuzen: "Euskararik gabe, Euskadirik ez" dagoela. Baina, nola ezkondu esanak eta ekintzak? Gaurko pedagogiak erakusten du, exenplua dela geure maisu ziurrena, eta ez honek hitzez esaten duena. Egi honekin, beste hau: Hizkuntza, hitzeginez bakarrik pasatzen den fenomeno soziala dela, ez dela sudurra bezala heredentzia bidez pasatzen, ezta bataioz edo sorginkeriaz ere. Hau da gaur hemen adierazi nahi dudana kezka: Ensalmoz kontserbatuko dugunaren ustea zabaltzeko modan geratu ote diren gure abertzaletasunaren bozeramale ofizialak. Unamunok formol bera gomendatu zigun aspaldi. Baina orain 100 urte haserretu egin ginen behintzat!!